



Gizalana

Iraila 2012

SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN BOLETINA

EDITORIALA

Zerbitzu publikoak desegiteko estrategia

Gizarte justuago baten ezaugarria da zerbitzu publiko unibertsal, doako eta kalitatezkoak izatea. Haatik, botere ekonomikoak, aberastasun gero eta gehiago pilatzeko setaz, estrategia bati jarraitzea erabaki du: orain arte ezagutu izan ditugun zerbitzu publikoak desegin, eraitsi nahi ditu, botere politikoaren laguntzaz. Publikoa den guztia desegiteko estrategian, ordea, oztopo bat topatzen dute, zerbitzu publikoetako langileok; horregatik jomugan jarri eta eraso egiten digute. Eta koartada bat erabiltzen dute: diru-sarrera publiko gero eta urriagoak izateko erabakiak hartu eta gero, zor publikoa ordaintzeari lehentasun guztia ematea (berez zor ilegítimoa izanagatik).

Gaur esan dezakegu botere ekonomikoak gidatu eta botere politikoak gauzatzen duten eraispen eta uniformatze hori Hego Euskal Herrian ere gertatzen ari dela. Zenbait kasutan, Madrilan erabakitako murrizketei erabateko babesa ematen dieten instituzioak medio (eta areago, murrizketa propioak ezartzen dituztelarik); beste erakunde batzuk, berriz, pasiboki edo babesa emanez zerbitzu publikoak eraistea ontzat ematen dute. Zoritxarrez, oso instituzio gutxi ari da eraispenaren aurka egiten.



SOLDATA MURRIZKETEKIN ETA ENPLEGU PUBLIKOAREN SUNTSIKETAREKIN JARRAITUKO DUTE. GELDIARAZI BEHAR DITUGU!

Irailak 26, greba orokorra

Zurra da datozen urteetan soldata murrizketa berriak eta enplegu suntsiketa gehiago izango ditugula zerbitzu publikoetan. Erabaki duten gastu txikitze politikak murrizketak dakartza. Geldiarazten ez baditugu norabide horretan jarraituko dute. Prozesu honetan herritar guztiak pobretuko dituzten neurriak hartu ditu Espainiako Gobernuak, eta beste behin zerbitzu publikoetako langileak erasotu nahi izan dituzte, ondorengo murrizketak planteatzu:

1.- Aparteko ordainsaria kendu, lapurreta hau konpontzeko konpromisorik hartu gabe.

Gabonetako aparteko paga kenduta, zerbitzu publikoetako langileok Hego Euskal Herrian bi urtetan gure erosteko

ahalmenaren %20tik gora galdu dugu. Hurrengo urteetarako soldata murrizketa berriak izango dira ere.

2.- Eskubideak eta lanpostuak kendu.

a) Kontingentzia arruntak medio gertatzen diren aldi baterako ezintasunetan (IT) osagarriak murriztu dituzte.

Herri-administrazio bakoitzerako inposatzen da murrizketa; administrazioak, bere eskumenen esparruan, bere pertsonalak jasotzen dituen prestazioak osatu ahal izango ditu, honako mugekin:

- Lehen hiru egun naturaletan, gehienez ordainsariaren %50eraino.



GREBA OROKORRA





- 4. egunetik 20.era, biak barne, osagarria gehi IT prestazioa batu-ta ezin izango da inola ere ordainsariaren %75etik gorakoa izan.

(Gogoratu beharra dago Patxi Lopezek jadanik IT osagarria murriztu zuela, eta Roberto Jimenez gauza bera egiten saiatu zela).

b) Nork bere eginbeharretarako har ditzakeen egunak gutxitu egingo dira. 6tik 3ra. Oporraldiei dagokienez, aurreikusitako 22 egun baliodunetatik haratago ezin izango dira luzatu, "gutxienik" aipamena kendu baitute oporraldiaren inguruko eskubidearen iraupena taxutzerako-

an.

c) Estatuko administrazio langilegoari mugikortasun eta adskripzio aldaketak errazten dira.

3.- Negoziazio kolektiboa eta defentsa kolektiboa suntsitzen ditu

a) Kreditu eta baimen sindikalak murriztu:

Kreditu eta baimen sindikalak murriztu egingo dituzte; uztailaren 15etik aurrera indarrak gabe geratu dira pertsonal funtzionario eta estatutarioari buruzko hitzarmenak eta laboralei buruzko hitzarmen kolektibo eta akordioak, betiere Langileen Estatutuan, Askatasun Sindikalaren Lege Organikoan eta Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa gaindituz gero.

b) Akordioak urratzeko barra libre:

Kontratu laborala duten enplegatu publikoen negoziatio kolektiboari buruz "salbuespen egoera" ekarriko duen neurri bat jaso da. Pertsonal laboralari eragiten dieten hitzarmen kolektiboak eta akordioak ez dira beteko "salbuespenez, eta baldintza ekonomikoaren ondorioz interes publikoaren lotutako zergati larri bat medio, herri-administrazioetako gobernu-organok dagoeneko sinatuta dauden hitzarmen kolektibo edo akordioak eten edo aldatzen dituztenean, interes publikoa bermatzeko behar den neurrian". Hots, hitzarmenak ez betetzeko gutun zuria izango dute agintariek.

Zerbitzu publikoen eraispenak izango dituen ondorio batzuk

- 1.- Gizartearen zati gero eta handiagoa zerbitzu publiko unibertsal eta doakorik gabe utziko dute, horiek gutxieneko oreka eta justizia izateko ezinbestekoak direlarik. Gainera, urrats nabarmenak eman go dituzte pribatizatzeko aldera. Zerbitzu publiko unibertsal eta doakoak ongizate-estatuan, gizarte-babesean eta aberastasunaren birbanaketan funtsezkoak dira.
- 2.- Enplegua suntsituko da.
- 3.- Lan-eskubideak eta lan-baldintzak hondatuko dira.
- 4.- Defentsa kolektiboko tresnak kenduko dizkigute.
- 5.- Zentralizazioa, murrizketa inposatuak eta erabakitze eskubidearekin batera gure zerbitzu sozialen eredia taxutzeko aukera galaraztea.



Gizartea pobretzeko baliatuko dituzten beste murrizketa batzuk

- Murrizketak langabezia-prestazio, subsidio eta oinarrizko errentan.
- Fogasaren babesa eta tramitazio-soldatzen gutxituko dira.
- Menpekotasun edo dependentzia prestazio ekonomikoak murriztuko dituzte.
- BEZ eta zerga bereziak gehituko dituzte.
- Merkataritza ordutegien erabateko liberalizazioa.



Murrizketa hauek noren onerako dira?



Murrizketa hauekin *banku-sistema-
ren erreskatea* ordaindu behar omen
dute. Berrero, botere ekonomikoek eta

governuek langile-klasea bahitu gisa hartzen dute, euren diru-gosez eta espekulatzeko antsiaz eragin dituzten zulo ikaragarriak ordaintzearren. Gaizkile fiskalenzat barkamena beti dute prest, horiek paradisu fisikaletan dirutza handiak gordeagatik; izan ere, ukiezinak baitira, euren artekoak izanik.

Zenbat aldiz entzun izan dugu *ontzi berean goaz*, edota krisiak *guztiok jotzen gaitu* bezalako esaldiak. Haatik, nonbait hori ez da gertatzen ordainsariak finkatzerakoan: langile-klaseari soldata jaitsi nahi digutenean, 2011 urtean enpresa handietako

kontseilukideek batez beste 2010an baino 7.000 euro gehiago jaso baitute. **IBEX 35eko kontseilukideek batez beste 2011n 500.000 eurotik gora zuten. Bitartean, Hego Euskal Herrian langabezia etengabe hazten ari da.**

Gure politikariak ez dira kezkatzen langabeziaren datuekin. Lau urtetan langabe kopurua bikoiztu egin da: gaur 200.000tik gora pertsona dago lanik gabe; hauetako %44ak ez du inolako langabezia-prestaziorik jasotzen.

Administrazioei galdegiten diegu ez dezatela obeditu



Beren interesak bermatzeko, Europako eta espainiar estatuko botere politikoak injustizia legezatzeko sistema bat eraiki du. Horrela esan dezakete *legea betetzen* dutela. Beti gertatu izan da hau. PPren aginduei men egiteak esan nahi du lagundu egiten dela ekonomia erreala suntsitzen, oinarritzko zerbit-

zu publikoen eta gizarte-babesaren sistema desagerarazten eta langabezia eta txirotasuna gehitzen.

Ez dugu onartuko politika bakarra betearaziko duen alderdi bakarreko sistemarik. Espainiar estatuan PPK, lehenago PSOEek bezalaxe, taxutzen du kapitalaren mesedetan egiteko politika; oinarri-lege gisa

ezartzen du, administrazio eta alderdi politiko guztiek betearaz dezaten. Baina hau ez da posible. Honi men egitea politika alternatiboa baztertzea eta gizartearen baitako orekak hankaz gora jartzea litzateke. Men egitea kolaboratzea litzateke. Horregatik, ELAk dio ez dagoela alternatibarik, men egiten bada.

Berrero diogu: egoera soziala hain larria izanik, desobedientzia da bide bakarra. Subirania edo autogobernua ahotan hartzea, hau aldarrikatzen duten indarrak PPren erabakiak betearazten dituztelarik, aldarrikapen politiko horiek erabat hutsal bihurtzen ditu. PPren legeen mamia injustizia izanik, desobedientzia da bide bakarra; gaur bertan hasita. Soziala den oro suntsitzen denean, burujabetza edo autogobernua gauzatzeko erabaki horiek betetzea ukatu beharra dago. Orain ez bada, noiz izango da horretarako aukerarik?

Euskal Herriko alderdi eta administrazioei exijitzen diegu nork dagokion esparruan ez dezala obeditu, eta urratsak egiten has dadila elkartasuna ardatz gisa izango duten politikak egite aldera.

Mobilizazioa da aurrera egiteko eta alternatibak onar ditzaten lortzeko modua

Mobilizatzeko inoiz baino premia handiagoa dago, eta irailaren 26ko greba deialdiarekin hainbat kontu aldarrikatu nahi dugu: alternatibak badirela, eta klase politikoari exijitu alternatiba horiek bere eginda praktikara eramán ditzaten. Hauek dira:

- Zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoak hedatu eta garatzea, Euskal Herriko biztanle guztientzat (batik bat sektorerik ahuleneztat).
- Kalitatezko enplegu publikoa aldeztu eta sortzea, langabezia murrizteko (lanaldia murriztu eta enplegua finkatzeko prozesuak; bajak lehen egunetik osatzeko ordezkapenak; lan-kargaren kontrola, eta kalitatezko zerbitzuak).
- Erabakitze subirania: Euskal Herrian nahi ditugun zerbitzu publikoei buruz ebazteko ahalmena. Burujabetza horren lehen zantzua Madrildik datozen murrizketa eta inposizioei uko egitea litzateke. Etorkizuneko burujabetza edo subirania aldarrikatzea ez da sinesgarria egungo botere- eta gobernu-esparruetan erabakiak hartzen hasi gabe.
- Negoziatzeko euskal esparrua: Bertoko esparruan negoziatutako lan-baldintza duinak, kanpotik ezarritako erabakiak saihestuko direlarik.
- Negoziatio kolektiboari eta kreditu sindikalei buruz sinatutako akordioak errespetatzea. Erakundeek kendutako erosteko ahalmena eta lan-eskubideak berreskuratzea.
- Zerga-politiken goitik beherako aldaketa, aberastasuna banatzeko eta biltzen den dirua gehitzeko, zerbitzu publiko eta gizarte-babesa hobetzea posible egitearren.
- Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa gehitzea, EBko batez besteko mailara eramateko.

Gizalanela 4

Pobrezia

Irailak 26
Septiembre

GREBA OROKORRA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Iraila 2012



Gizalan

SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN BOLETINA